



BASQUE CULINARY CENTERREN GONBIDAPENEN ZOZKETA

1.- Erakunde antolatzailea eta zozketaren data

Caja Laboral Popular S. COOP. kooperatiba sozietateak—aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbide soziala Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua zk.g., 20500— duenak, zozketa bidezko sustapen bat egingo du. Hain zuzen, Basque Culinary Center Fundazioan 2017ko azaroaren 24an egingo den afari-ikuskizun baterako 30 gonbidapen bikoitz zozkatuko ditu 2017ko azaroaren 20an.

2.- Doakotasuna

Zozketa hau doakoa da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Pertsona fisikoak diren 18 urtetik gorako bezeroek hartuko dute parte zozketan, betiere gonbidapena posta elektronikoz edo gutunez jaso badute eta inprimakia ezarritako epearen barruan bete badute. NAN bakoitzeko sari bat baino ez da emango. Zozketa prozedura informatikoen bidez egingo da.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

Irabazleek egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak eta/edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

4.- Zozketa

Zozketa 2017ko azaroaren 20an egingo da, ausazko sistema informatikoaren bidez, jakinarazpenean adierazitako epealdietan zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien artean

Gainera, ordezkotako 10 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

Entitatearen datu-basean gordetako bezeroen datuak erabiliz hiru egun baliouduneko epean saridunen batekin harremanetan jartzerik ez badago, saria lehen ordezkotarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraiki.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

Basque Culinary Centerren izango den afari baterako eta César Bueno magoak eskainiko duen magia-ikuskizun baterako 60 lagunentzako 30 gonbidapen bikoitz zozkatuko dira. Entitateak egoki iruditzen zaizkion moduan eta lekuan emango du saria.

6.- Sariaren fiskalitatea

Sariari indarrean dagoen legedian ezarritako zerga dagokio. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko. Zergaren alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, LABORAL Kutxari baimena eman behar dio bere izen-abizenak saritu gisa argitaratzeko, Entitateari sustapen hau hedatzeko egokiak iruditzen zaizkion argitalpenetan edo komunikabide telematikoetan. Baimena eman ezean, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkotari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere.

Bezeroak zozketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek oso-osorik onartzea. Oinarriok hemen kontsulta daitezke: www.laboralkutxa.eus.